

Oharkabea

Beharbada horixe da Patxi Zabaleta-ren artikulutik nabarmendu beharrekoa, ia oharkabea pasa dela. Beharbada intuizioz dakizkigu kontu hauek, bake prozesua, hala deitzerik baldin badago behintzat, luzea eta nekeza izango dela iruditzen zaigu denoi, eta berez bezala joango dela, guk ez daukagula zeresan handirik, beste batzuk direla horretan aritu behar dutenak. Ia beste gauza guztietan bezala. Herriarrak zabor poltsa edukiontzian uztea baino neke handiagoz ez duela hartu behar esaten entzun nuen munduko alkate onena Euskadi Irratian, espainolez noski. Izango da berriz ere!



Jira
Xabier Gantzarain

Beste munduko adierazpen harrigarrik ez duela egin Patxi Zabaletak, irudituko zaio akaso askori: ETA arrazoi politikoengatik sortu zen, arrazoi politikoengatik hartu du borroka armatua behin betiko uzteko erabakia eta arrazoi soilik politikoengatik dagokio armak entregatu, erakunde zibila soilik bihurtu eta dagokionean hutsaltzea.

Batek gauzak nahasteko joera du ordea, eta iruditzen zaio borroka armatuarekin batera garai bat ere bukatu dela, aurrez bukatzen hasia zena, bidenabar esanda, eta dena bukatu dela oharkabea, eta garai berririk oraindik ez dela hasi.

Hitzek durundi dagite: dagokionean hutsaltzea.

Arrazoaia

Aitona Joakin Txilik behin baino gehiagotan esan zidan: «Ikusiko duzu, zuel itxi egingo dizuete *Egunkaria*; kartzelara eramango zaituztete». Eta, noski, irribarrez erantzuten nion, urmeen eta zaharrek inbilitzen dugun tonu onberaz: egoteko lasai, ez zela halakorik kabitzen inoren buruan. Eta nire kolporako pentsatzen nuen txotxatuta zebifela aitona, nolabaik, Gerra garai ikaragarri hartara itzulia zela, bai behintzat politika kontuetan. Nire inozoa sinetsita bainengoen bazirela muga batzuk estatu aparatua ankerrenek ere urra ezin zitzaletenak, nahiz eta orduaroko behin baino gehiagotan



Bira
Idurre Eskisabel

ikusitu nuen hesi gaindezin horietako batzuk nola eraisten zituzten; nola zen gero eta estuagoa babes eremua.

«Ikusiko duzu, *Egunkaria* itxi egingo dizuete», tematzten zen, ordea, aitona: «Honek lehengo igualak dira. Ez dira kanbiatu. Ez dute euskara begien aurrean ikusi nahi; minik handiena euskarak egiten die». Eta neure kautan pentsatzen nuen txikiegia, ezgauzagiak ginela inori egiazko minik egiteko; balizkoa nahi nuen etsalrik kontuan har gintzan. Ez ez nintzen konturatzten, euskararen bidez egunero herri bat gorputzen genuela Samartzetik Cortesera, eta Eskilatik Lanestosara. Hori zela gure handitasuna; gure kontrako heriotza epaia. Eta aitona Joakin Txilik arrazoi zuela.

Zuzendaria:
Martxelo Otamendi
Zuzendariordea:
Itzi Peltxarroman
Edizio arduraduna:
Andoni Alvarez
Argitaratzailea:
Euskal Editorea SM
Publizitatea: Bidera
publizitatea
Lege gordailua:
SS-0662/03
Batzorde parekidea:
071284059

Egoitza nagusia:
Martin Ugalde kultur parkea.
Gudarien Etorbidea, z/g.
20140 Andoain.
Telefonoa:
(0034) 943-30 40 30
Faxa: (0034) 943-30 09 43
Webgunea:
www.berria.info
Posta elektronikoa:
berria@berria.info
Publizitatea:
publi@bidera.eu
Harpidetzatzailea:
(0034) 943-30 43 45

Date: 20/02/2013
Exemplaire: 2.998
Editeur: Euskal Editorea s.l.
Directeur de publication:
Martxelo Otamendi
Comission paritaire:
071284059
Delegation Labour:
Lisses 3, 64100-Baiona.
Tel.: (0033) 559256220.
Fax: (0033) 559254303.
E-mail: lapurdi@berria.info

ORDEZKARITZAK
Araba: Bizenta Mogel, 6.
Posta kodea: 01008
Gasteiz. Telefonoa:
945-15 04 52. Erredakzio:
faxa: 945-14 83 07.
Posta elektronikoa:
araba@berria.info.
Bizkaia: Uribitarre kalea, 18,
3. C. Posta kodea: 48001
Bilbo. Telefonoa:
94-435 26 00. Erredakzio:
faxa: 94-423 49 75.
Posta elektronikoa:
bizkaia@berria.info.
Lapurdi: Lisses, 3, Posta
kodea: 64100 Baiona.
Telefonoa: 559-25 62 20.
Faxa: 559-25 43 03.
Posta elektronikoa:
lapurdi@berria.info.
Nafarroa: Iraxeko Monasterioa,
45, 13. Posta kodea:
31011 Iruñea. Telefonoa:
948-36 66 22.
Publizitatea: 948-36 66 23.
Posta elektronikoa:
nafarroa@berria.info.

berria

'Egunkaria'-tik haratago

Joan Mari Torrealdai
Egunkaria-ko Administrazio
Kontseiluko lehendakari ohia

Ia dozena erdi bat urte pasatu nituen ulertu ezinik zergatik jokatu zuten jokatu zuten bezala Guardia Zibilak eta horien eskutik epaile instruktoreak, Juan del Olmo jaunak. Ezin nuen ulertu zergatik jokatu zuten *Egunkaria* epaiketa gabe, itxi eta ondasunak likidatu; zergatik jokatu zuten gurekin horren bortitz, *Egin* egunkariaren kasuan ez bezala: atxiloteta, tortura, kartzela. Nola salatzen ziguten zuzen-zuzenean eta aurreneko orduetik ETako kide izatea, buruzagi gainera, 10 edo 13 urte lehenago zabaldu ziren guri buruzko eta gureak ez ziren paper batzuetan oinarrituta, beste frogarik gabe, frogatzen zirela bakar bat gabe.

Juan del Olmo epaileak Guardia Zibilak bezain argi zuen auzia: etakideak ginen, kulturengintza mozorrotuta geunden, hain zuzen ere ETarentzat hobeto lan egin ahal izateko. Beraz, epaiketa zegokigun.

Eta epaiketa egin egin zen. Epaiketakoa, akusazioek ezin izan zuten deus frogatu. Ez da hori bakarrik: Auzitegiak bere ebazpenean argi eta garbi dio bai ikerketa politziala eta bai instrukzio judiziala aurreiritzi eta espekulazioetan oinarritu zirela biak.

Auzitegiak akusazioei salatzen dien aurreiritzi horietako bat, nagusia agian, hauxe da literalki: «*La estrecha y errónea visión según la cual todo lo que tenga que ver con el euskera y la cultura en esta lengua tiene que estar fomentado y/o controlado por E.T.A. conduce, en el proceso penal, a una errónea valoración de datos y hechos y a la inconsistencia de la imputación.*»

Ebazpen hori 2010eko apirilera joan da. Salatzen duen ikuspegiaren jatorria 2007an ezagutu genuen guk. Zeharbidez.

Hona nola: 2007ko irailean Dignidad y Justicia sumarioko kidean aurka akusazioak formulatu eta zigorrak eskatu zituzkigun txostenean agertzen da. Txosten horrek *Egunkaria* bakarrik ez, euskalgintza osoa analizatzen du. Sakontasunak harritu gintuen, eta iturburua beste nonbait behar zuela susmatu genuen. Bai asmatu ere. Dignidad y Justicia, hitzez hitz, iturria aitortu gabe, Guardia Zibilaren Zuzendaritza Nagusiko Informazio Zerbitzuek 2002an landu zuten txostenetik jasoa zuen: «*La manipulación de la lengua y la cultura vasca por E.T.A.*», 20 orrialde.

Sekulako aurkikuntza izan zen hori guretzat. Txosten hori irakurrita, aise ulertu genuen nola tratatu gintuen Guardia Zibilak, zergatik akusatzen gintuen epaile instruktoreak, nola 2001ean hasita euskal kulturako 20 enpresa miatu zituzten, gure atxilotetan zertarako eraman zuten informazioa *Jakin-etik*, Elkar fundaziotik, *Argia*-tik, Ikastola-Partaidetik. Eta gainerako guztia. Akusazio guztien ama zen.

Inondik ere txosten horri egiten dio keinu Auzitegiak gaitz guztien iturburutzat ikuspegi estu eta oker hori salatzen duenean. Txosten horrek bitan banatzen du euskalgintza: labor esanda, instituzionala eta beste. Batean daude Nazioko Gobernua eta gobernu autonomikoak, holaxe. Eta bestean? Bestean ETA, holaxe. ETAk, izan ere, bere buruari euskal kulturaren alorrean zera aitortzen omen dio: «*da exclusiva en su protección, difusión y ánimo para impulsarla.*» Esklusiba. Horra tesiaren muina.

Ondorioa argia da, euskalgintza

sozialak ez du autonomiarik, ez du independentziarik, ez da beregaina, ez du gorputzik. Ez dago gizarite zibilik euskararen unibertsoan, euskalgintza soziala ETArene euskal eskuliboa baita. ETArene existentzia eta omnipresentzia aitortuz, gizarite zibilari euskalgintza jarduteko legitimitatea ukatu egiten zaio. Kontzeptuak, egiturak, proiektuak, ekimenak oro ETArene dira. Eta euskalgintza ETArene denez, ez du muntarik zer egiten duzun, zer zaren baizik.

Iste izan genuen orduan, eta hala uste dugu orain, txosten horrek argi berria ematen diola *Egunkaria*-ren auziari, egun argitan garbi agertzen baita bertan, helburu eta argudioetan, azken jomagan ez dagoela *Egunkaria*, euskal kultura baizik. Espresuki aipatzen dira ikastolak, unibertsitatea, artearen mundua, dantza eta folkloretaldeak, Martin Ugalde Kultur Parkea.

Guardia Zibilaren tesi hori ezagutu orduko ohartarazi genuen *Egunkaria* baino gehiago zegoela jokoan gure epaiketan. Zigor sententzia batekin Guardia Zibilaren tesia indarturik aterako zen. Eta *Egunkaria*-ren aurka jo zuten bezala joahal izango zuten hainbat proiektu, enpresa eta talderen kontra, argudio-ildo berberarekin. Kondena tarteko, euskal kulturaren kriminalizazioak ez zukeen frenorik. Zirkulu bat gehiago erantsiko zioten «den-dena ETA da» doktrinari: lehen zirkuluan, komandoak; bigarrenean, ezker abertzaleko alderdiak; hirugarrenean, eragile soziopolitikoak, 18/98a. Eta laugarrenean, euskara eta kultura.

Zorionez, Auzitegiaren sententziak txiki-txiki eginda uzten du saio gaizto hori. *Egunkaria*-ren epaiketatik euskal kultura libre, garbi eta indarturik aterata da.

Zirkulu bat gehiago erantsiko zioten «den-dena ETA da» doktrinari: lehen zirkuluan, komandoak; bigarrenean, ezker abertzaleko alderdiak; hirugarrenean, eragile soziopolitikoak, 18/98a. Eta laugarrenean, euskara eta kultura